

• Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektuaren bazkideak gu izango gara, hau da, proiektua egiten ari garenak. Proiektua aurrera eramateko gutako bakoitzak bere funtsezko baliabide bat jarriko du. Bakoitzak bere baliabide hoberenak erabiliz. Adibidez:

Jone → Aplikazioa sortzearen ardura

Irati → Aplikazioaren diseinua egitearen ardura

Julen U. → Elkartrukeen funtzionamenduaren ardura (fiantzak...)

Julen Z. → Publizitatearen ardura, hau da, aplikazioa munduan zehar ezaguztaratzea.

Beste bazkide batzuk ere izango ditugu, euskal telebista, egunkari eta irrati programak. Hauek guri publizitatea emango digute guk euskara liburuak salduko ditugulako. Horregatik euskal telebista eta abarrekin lanean arituko gara.

Bestalde, gure aplikazioak funtziona dezan, hornitzaileak beharko ditugu. Garraio bidez arduratzen den enpresa (liburuak garraiatzeko) eta liburu dendak (haiei liburuak erosiko dizkiegu). Horrezgain, hainbat idazle hasiberriekin arituko gara lanean, literartura munduko sarrera errazteko. Ordainetan guk haiei publizitatea eta beraiek guri dirua emango digute.

• Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Azkenfinean, gure proiektua aurrera ateratzeko laguntza behar dugu, baita publizitatean ere, munduan zehar ezagunak egiteko.